

# LAGUNTZA HANDIKO EGOITZA-ZENTROAK

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Egoitza edo etxebizitza bat laguntzarekin eskuratzea**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **buruko gaixotasun kronikoa** dutenak.

## Kostua

**Koordainketa duen zerbitzua**, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

## Baldintzak

**18 urte edo gehiago** (salbuespenak izan ezik).

**Buruko gaixotasun kronikoaren** diagnostikoa.

## Zertan datza?

Zentro soziosanitarioak dira, eta gaixotasun mental kronikoa duten eta beren ingurunean artatu ezin diren beharrak dituzten pertsonentzako ohiko etxebizitza gisa balio dute ([2.4.3 fitxa](#)). Egoitza horiek laguntza zabala eta malgua bermatzen dute, pertsonaren behar aldakorretara egokitzen dena. Errehabilitazio funtzionalerako, psikosozialerako eta gizarteratzeko programak eskaintzen dituzte, gaixotasun mentala duten pertsonen autonomia pertsonala hobetzeko eta mantentzeko, haien sintomatologia murrizteko, ospitaleratze psikiatrikoak saihesteko eta haien integrazioa bultzatzeko. Programa horietan, laneratzeko edo prestakuntza-jarduerak edo prestakuntza-aurreko jarduerak sartzen dira. Osasun-prestazioei dagokienez, erizaintzako arreta eta arreta medikoa barne hartzen ditu, arreta psikiatrikoa bereziki. Otordu zerbitzua (gosaria, bazkaria, askaria, afaria), garbitegia, garbiketa eta zaintza ere sartzen dira. Aldi baterako, egonaldi luzeko edo egonaldi iraunkorreko zerbitzuak izan daitezke.

## Norentzat?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **gaixotasun mental kronikoa edo nahasmendu mental larria diagnostikatu zaienak**.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du, bere egoera ekonomikoaren eta baliabidea erabiltzeko modalitatearen arabera.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**18 urte edo gehiago**. Salbuespen gisa, adingabeak ere sartu ahal izango dira.

Dagokion lurralde historikoko udalerriren batean **errolatuta egotea**.

Gaixotasun mental kronikoaren edo nahasmendu mental larri eta luzearen **diagnostikoa**.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

## Informazio gehiago:

- [Laguntza handiko egoitza-zentroak Araban](#)
- [Laguntza handiko egoitza-zentroak Bizkaian](#)
- [Laguntza handiko egoitza-zentroak Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)